



## 1. ATALA



### ULERMENA

Esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Lurtarrek jainkoen lanaren froga zientifikorik ez dutenez, jada ez dute haien magian sinesten  
 EGIA    GEZURRA
2. Lurtarren ustez, Lurra Big Bang edo Leherketa Handiaren ondoren sortu zen  
 EGIA    GEZURRA
3. Lurtarrek beren planetari Planeta Urdina esaten diote kanpotik begiratuta urdina delako  
 EGIA    GEZURRA
4. Ozeano Barea beti egoten da lasai  
 EGIA    GEZURRA
5. Lurrean bi ur mota daude: gazia eta geza  
 EGIA    GEZURRA
6. Lurrean dagoen ur gehiena geza da, %97 hain zuzen ere  
 EGIA    GEZURRA
7. Lurreko izaki bizidun guztiek ur geza behar dute bizi izateko  
 EGIA    GEZURRA
8. Lurraren hiru laurdenak urak hartzen ditu eta laurden bat lurrak  
 EGIA    GEZURRA
9. Europa oso txikia denez, mapetan oso txiki agertzen da  
 EGIA    GEZURRA
10. Lurraren sabela suzkoa da eta batzuetan dardaraka hasten da  
 EGIA    GEZURRA



## GRAMATIKA

1. “..lurrean dagoen ur guztiaren herena biltzen du bere barruan” (4.orrialdean)  
“..urak Lurraren hiru laurdenak hartzen ditu” (6.orrialdean)  
“Beraz, lurrak planeta honen laurden bat besterik ez du hartzen” (6.orrialdean)

**ZATIKIAK:** Zatikia adierazteko Noren kasua erabiliko dugu.

$\frac{1}{5}$ : bosten

$\frac{1}{6}$ : seiren

$\frac{1}{7}$ : zazpiren

$\frac{1}{20}$ : hogeiren

$\frac{2}{3}$ : bi hiruren

$\frac{5}{6}$ : bost seiren

.....

**Baina:**

$\frac{1}{2}$ : erdi

$\frac{1}{3}$ : heren

$\frac{1}{4}$ : laurden

Eman itzazu hizkiz honako hauek:

- $\frac{2}{4}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{1}{3}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{2}{5}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{6}{10}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{1}{2}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{6}{7}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{4}{5}$ : \_\_\_\_\_
- $\frac{1}{8}$ : \_\_\_\_\_

2. “Bere diametroak 12.756 kilometro besterik ez dauka”(3.orrialdean)  
“la ura besterik ez daukan planeta honetan,... ” (5.orrialdean)  
“Beraz, lurrak planeta honen laurden bat besterik ez du hartzen” (6.orrialdean)

**BESTERIK EZ:** Esapide hau “Gehiagorik ez, bakarrik” adierazteko erabiltzen da.

Adibidez:

- Bat besterik ez dut aurkitu



Idatzi ondoko esaldiak **BESTERIK EZ** erabiliz:

1. 2 lagun daukat, ez gehiago.

\_\_\_\_\_ besterik ez \_\_\_\_\_

2. 2000 euro bakarrik ekarri dut.

\_\_\_\_\_ besterik ez \_\_\_\_\_

3. Bost emakume bakarrik gaude klasean.

\_\_\_\_\_ besterik ez \_\_\_\_\_

4. Abestea gustatzen zaio baina beste ezer egitea ez zaio gustatzen.

\_\_\_\_\_ besterik ez \_\_\_\_\_

5. Bere familiakoek bakarrik jasaten dute hori.

\_\_\_\_\_ besterik ez \_\_\_\_\_

6. Hori kontatu didate, gehiagorik ez.

\_\_\_\_\_ besterik ez \_\_\_\_\_

## 2. ATALA



### ULERMENA

Aukera ezazu erantzun zuzena:

1. Lurreko izaki bizidunak...
  - a. zelula bakarrekoak dira gehienak
  - b. 30 metro luze dira
  - c. insektu izenekoak dira gehienak
  
2.
  - a. Landareak, ibili ez arren, autonomoak dira elikatzeko orduan
  - b. Landareek beste izaki bizidun batzuk jaten dituzte, baita lurtarrak ere
  - c. Landareak alde batetik bestera ibiltzen direnez, autonomoak dira elikatzeko orduan
  
3. Lurtarrek landareak...
  - a. elikatzeko erabiltzen dituzte
  - b. sendatzeko eta gaixotzeko erabiltzen dituzte
  - c. a eta b erantzunak egia dira



4. Charles Darwinen ustez,
  - a. animaliak ez dira aldatzen eta horrela ingurumenean gero eta hobeto moldatzen dira
  - b. jirafak lepoa luzatu zuen ederragoa izateko
  - c. animaliak aldatzen ari dira ingurumenean moldatzeko
5.
  - a. Animalia ugari dago, 1.000.000 bat espezie inguru
  - b. Gero eta animalia espezie gehiago dago
  - c. Gero eta arriskutsuagoak dira animaliak
6.
  - a. Lurtarrek jateko behar dituzten animaliak besterik ez dituzte hiltzen
  - b. Animaliek Lurtarren heriotza ikuskizun bihurtu dute
  - c. Animaliek elkar jaten dute bizirik irauteko



## GRAMATIKA

1. “Balea urdina izeneko izaki bizidun izugarri handia ere badago, 30 metro luze dena!”(9.orrialdean)  
“...lorerik ederrena Edelweiss lorea da. Elur artean hazten da. 2500 metroko garaieran...”(10.orrialdean)

### **DIMENTSIOAK:**

2 modutan adieraz daitezke:

5 metroko luzera dauka: 5 metro luze da

6 metroko zabalera dauka: 6 metro zabal da

7 metroko sakonera dauka: 7 metro sakon da

6 metroko altuera dauka: 6 metro luze da

4 zentimetroko lodiera dauka: 4 zm lodi da

Jarri beste era batean:

1. Igerilekuak 2 metroko sakonera dauka

---

2. Eraikin honek 25 metroko altuera dauka

---

3. Mahai horrek 12 zentimetroko lodiera dauka

---

4. Bideak 7 kilometroko luzera dauka

---



2. “Lurtarrek denetariko landareak jaten dituzte: belarrak, barazkiak, fruituak, eta abar. Hala ere, txikiak direnean, barazkiak gorrotatzen dituzte....” (11.orrialdean)  
“...negarrez hasten dira jan behar dituzten bakoitzean. “Esate baterako, lurtarrek badakite, tabako eta koka orriak luzaroan errez gero, hil egiten direla, baina, hala ere, behin eta berriro erretzen dituzte” (11.orrialdean)  
“Uretan igerian mugitzen dira animaliak, airean hegan, et eta lasterka. Hala ere, ez pentsa animalien bizitza landareena baino askoz interesgarriagoa denik” (12.orrialdean)

**HALA ERE:** Aurkaritzako lokailua. Koma artean idazten da eta kontrajartzen duen esaldia puntu eta komaz edo puntuz bereizten da.

Mutil ona ematen du; hala ere, ez da nire gustukoa.

Ez dut ezagutzen; hala ere, galdetu egingo diot.

Idatzi ondoko esaldiak beste era batera:

1. Nahiz eta polita izan, ez dut erosiko.

\_\_\_\_\_ ;hala ere, \_\_\_\_\_

2. Ez dauka lagunik baina pozik bizi da.

\_\_\_\_\_ ;hala ere, \_\_\_\_\_

3. Nahiz eta gogorik ez izan, deitu egingo diot.

\_\_\_\_\_ ;hala ere, \_\_\_\_\_

4. Gaztea da baina beti atsoekin ibiltzen da.

\_\_\_\_\_ ;hala ere, \_\_\_\_\_

5. Ez dio kasu handirik egiten baina guztiz maiteminduta dago.

\_\_\_\_\_ ;hala ere, \_\_\_\_\_



### 3. ATALA



#### ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Zein izen ematen diete lurtarrek emeei eta arrei?

---

2. Zein da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasunik handiena?

---

3. Nor arduratzen da umeen heziketaz?

---

4. Zerk elkartzen ditu emeak eta arrak?

---

5. Noren aurka egin zituzten lurtar zuriek sarraskiak?

---

6. Zer da esklabotasuna?

---

7. Gaur egun zer egiten dute zuriek beltzak hiltzeko?

---

8. Zergatik estaltzen dute lurtarrek beren gorputza?

---

9. Zer da moda?

---

10. Zer egiten dute nudistek?

---



## GRAMATIKA

1. “Ugalketan bai arrek bai emeek hartzen dute parte, baina arrek hasieran baino ez”  
(18.orrialdean)  
“Gainera, orain ez dago gizonak eta emakumeak janzkeran bereizteko modurik, bai  
batzuk eta bai besteak berdintsu jantzita ibiltzen direlako” (22.orrialdean)

**BAI...BAI...** Esaldi mota hauetan, bigarren perpausak.  
**EZ...EZ...** aurrekoak esandakoari zerbait gehitzen dio.

Jar itzazu esaldiak beste era batera:

- Igone lotsagabe galanta da baina Itziar ez da atzean geratzen

---

- Ez dugu prestatuko, ezta jango ere

---

- Txikitan eskolara joaten ginen eta elizara ere bai

---

- Egiezu kasu gurasoei eta irakasleari

---

- Ez naiz Parisera joango eta Bordelera ere ez naiz joango

---

- Pastela umeentzat da eta nagusientzat ere bai

---

2. “Egia esan, lurtar batzuek sexua besterik ez daukate buruan eta beti ibiltzen dira lagun bila” (18.orrialdean)  
“Baina gehienei laster pasatzen zaie eta beste ar edo eme baten bila hasten dira”  
(19.orrialdean)  
“Leku guztietan gizonak agintzen dute, eta emakumeak haien mendean bizi dira”  
(19.orrialdean)

**-(R)EN BILA:** Posposizio hau **NOREN** kasuarekin erabiltzen da mugagabeen izan ezik, mugagabeen kasu-markarik gabe jartzen da. Adibidez:

- Senarraren bila: Nire senarraren bila nabil
- Senarren bila: Nire lagun senarren bila
- Senar bila: Ez daukat senarririk eta ezkondu nahi dudanez, senar bila nabil



Eman erantzuna hurrengo galderei:

- Ez daukazu lagunik. Noren bila ari zara?

(Lagun) \_\_\_\_\_

- Zure laguna jaietan galdu da eta kuadrilakoak haren bila atera zarete. Noren bila joan zarete?

(Lagun) \_\_\_\_\_

- Langabezian zaude eta interneten ari zara begira. Zeren bila ari zara?

(Lan) \_\_\_\_\_

- Etxez aldatu nahi duzu eta egunkarian iragarkiei begira ari zara. Zeren bila ari zara?

(Pisu) \_\_\_\_\_

- Lagun baten etxean jai bat antolatu dute eta bere auzora joan zarete. Ez duzue bere etxea aurkitzen. Zeren bila ari zarete?

(Etxe) \_\_\_\_\_

## 4. ATALA



### ULERMENA

Esan ezazu ondoko esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Lurtarrek komunikatzeko hizkuntza izeneko kode bat daukate

EGIA     GEZURRA

2. Munduan seiehun bat hizkuntza daude

EGIA     GEZURRA

3. Zortzi hizkuntzak ehun milioi hitzun baino gehiago daukate, hizkuntza inperialak dira

EGIA     GEZURRA

4. Bost mila hizkuntza inguruk ehun milioi hitzun baino gutxiago daukate eta desagertzeko arriskuan daude

EGIA     GEZURRA

5. Gaur egun frantseza da lingua franca edo nazioarteko hizkuntza

EGIA     GEZURRA





6. Nahiz eta kultura bereko kideak izan, pentsaera, sineskera eta portaera desberdinak izaten dituzte  
 EGIA  GEZURRA
7. Kultura, kultura horretako kideek egiten duten guztia da  
 EGIA  GEZURRA
8. Kultura, literatura, antzerkia eta zinema besterik ez da  
 EGIA  GEZURRA
9. Afrikako Karen herrian gizonezkoei lepoaren inguruan eraztun bat jartzen diete jaiotzean  
 EGIA  GEZURRA
10. Etiopiako Bodi herrian, gizon gazteak zenbat eta lodiago egon, orduan eta ederragoak direla uste dute  
 EGIA  GEZURRA
11. Bulgarian, goitik behera mugitzen dute burua baietz esateko; eta ezker eskuin, ezetz esateko  
 EGIA  GEZURRA
12. Indiako Solapur hirian urtero ume bat botatzen dute dorre batetik  
 EGIA  GEZURRA



## GRAMATIKA

1. “Burua moteldu egiten zaie eta gero eta gauza gutxiago dakite” (25.orrialdean)

**GERO ETA:** Egitura hau konparazio elementuen arteko desberdintasuna denborarekin handitu egiten dela azaltzeko da. Adibidez:

Gero eta alaiago nago

Gero eta diru gehiago/gutxiago daukat

2. “Zenbat eta lodiagoa izan, orduan eta ederragoa da gizona” (30.orrialdean)

**ZENBAT ETA....-ago(a) ORDUAN ETA.....-ago(a):**

Konparazio hau lehenengo elementuak bigarrean eragiten duenean erabiltzen da.

Adibidez:

Zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta gehiago gastatzen dut

Zenbat eta alaiago egon, orduan eta barre gehiago egiten dut



Erantzun itzazu ondorengo galderak parentesi artean daukazuna erabiliz:

1. \_\_\_\_\_

Nola bizi gara? (Gero eta)

\_\_\_\_\_

2. Nolakoak dira lagunekin dituzun harremanak?

(Zenbat eta...orduan eta) \_\_\_\_\_

3. Zenbat denbora eskaintzen diezu zaletasunei?

(Gero eta) \_\_\_\_\_

4. Nolakoak dira Bilboko jaiak?

(Gero eta) \_\_\_\_\_

5. Nolakoa da gau giroa zure herrian?

(Gero eta) \_\_\_\_\_

6. Zenbat diru gastatzen duzu?

(Zenbat eta...orduan eta) \_\_\_\_\_

## 5. ATALA



### ULERMENA

Aukera ezazu erantzun zuzena:

1.

- a. Herrien izenak normalean laburrak izaten dira
- b. Herri izen luzeenak hirurogeita hamar hizki ditu
- c. Herri izen laburrenak hiru hizki ditu

2.

- a. Herrietako kaleak porlanezkoak izaten dira eta leku batetik bestera joateko erabiltzen dituzte
- b. Etxeak kubo bertikal modukoak dira eta lurtarrak haien gainean bizi dira
- c. Gehienetan etxeak labirintoetan egiten dituzte

3.

- a. Herri txikiei hiri deitzen diete
- b. Herri handiei hiri deitzen diete



- c. Hirietan herrietan baino gauza gutxiago dago
- 4.
- a. Etxeorratzak etxe zabalak izaten dira jende gehiago sartzeko
  - b. Hirietan jendea lasai bizi da patxada osoan
  - c. Hiri handietan jendea korrika eta presaka ibiltzen da eta inoiz ez da egoten lasaitasunik
- 5.
- a. Hirietan ez da egoten lorategirik edota parkerik
  - b. Hiriak naturaz inguratuta egoten dira eta berdegune ugari izaten dituzte
  - c. Hirietan parke eta lorategiak egiten dituzte natura imitatzeko
- 6.
- a. Hiru mila milioi lurtar hirietan bizi da
  - b. Gero eta jende gutxiago bizi da hirietan
  - c. Lurtarren laurdena hirietan bizi da
- 7.
- a. Hirietan bizi diren pobreak etxeorratzetan bizi dira
  - b. Hirietan bizi diren aberatsak faveletan bizi dira
  - c. Hirietan bizi diren pobreak faveletan bizi dira



## GRAMATIKA

1. “ Ni askotan galdu naiz kale artean. Lurtarrei gauza bera gertatzen zaie”

### **BERA # BERDINA**

**BERA** erabiltzen dugunean gauza bakarra da eta **BERDINA** erabiltzen dugunean bi gauza edo gehiago

Adibidez:

Ahizpa eta biok alkandora bera erabiltzen dugu

Zuk eta biok alkandora berdina daukagu

Lehenengoan, alkandora bat da eta txandaka erabiltzen dugu, batzuetan ahizpak eta besteetan nik. Bigarreanean, aldiz, bi alkandorari egiten die erreferentzia, kolore, marka eta ezaugarri berdinak dituztenak.

Idatz ezazu hutsuneetan BERA edo BERDINA hitza:

1. Zuriñeren jertsea eta nirea \_\_\_\_\_ dira
2. Senarra eta biok etxe \_\_\_\_\_ bizi gara
3. Izaskunek atzo soineko berdea jantzi zuen eta gaur ere soineko \_\_\_\_\_ jantzi du



4. Atzo ez joateko esan zidan eta gaur gauza \_\_\_\_\_ esan dit
  5. Zure kotxea eta zure koinatuarena \_\_\_\_\_ dira
  6. 6Senar-emazteak dira eta ohe \_\_\_\_\_ egiten dute lo
  7. Klasekook inauterietan mozorro \_\_\_\_\_ jantzi genituen
  8. Iaz oporretan hotel batera joan ginen eta aurten hotel \_\_\_\_\_ joango gara
2. “Egia esan, nik, izena ez ezik, herria bera ere ezabatuko nuke kasu askotan...”  
(35.orrialdean)

**EZ EZIK ....ERE:** Emendiozko alborakuntza.


Lehenengo juntagaia+ez ezik+bigarren juntagaia+ere

Aditza bigarren juntagaiarekin joango da

Adibidea: Gu ez ezik haiek ere joango dira

**Aukera ezazu esaldi egokia:**

1. Mutil hori lotsatia ez ezik jatorra ere bada
  - Mutil hori lotsatia da eta jatorra ere bai
  - Mutil hori lotsatia da baina ez jatorra
2. Mikel ez ezik klaseko beste guztiak ere etorriko dira mendira
  - Mikel bakarrik etorriko da mendira
  - Mikel eta klaseko guztiak etorriko dira mendira
3. Bulegoa goizez ez ezik arratsaldez ere irekita egoten da
  - Bulegoa batez ere arratsaldetan egoten da irekita
  - Bulegoa goizez irekita egoten da, baita arratsaldez ere
4. Klasera kuadernoaz ez ezik boligrafoa ere ekarri behar da
  - Klasera, kuadernoaz gain, boligrafoa ere ekarri behar da
  - Klasera denetarik ekarri behar da, kuadernoa eta boligrafoa izan ezik
5. Josetxo ez ezik bere gurasoak ere ezagutzen ditut
  - Josetxo eta bere gurasoak ezagutzen ditut
  - Josetxoren gurasoak ezagutzen ditut



## 6. ATALA



### ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Zer gertatzen ari da petroleoarekin?

---

2. Zenbateko abiadura hartzen zuen lehenengo automobilak?

---

3. Zenbateko abiadura hartzen dute gaurko automobilerak?

---

4. Zer dira autobideak?

---

5. Zertarako erabiltzen dituzte lurtarrek itsasontzi handiak?

---

6. Zenbat pertsona garraiatu ahal dituzte gaurko hegazkinek?

---

7. Noiz asmatu zen bizikleta modernoa?

---

8. Zer egin zuen Thomas Stevensek?

---

9. Zer dira bidegorriak? Nolakoak dira?

---

10. Zeintzuk dira bizikletaren abantailak?

---



## GRAMATIKA

1. “Lehen harrizko gurpilak eta orain gomazkoak” (41.orr)  
“Burdinazko kutxa ibiltariak” (42.orrialdean)  
“Gomazko lau gurpilen gainean kutxa bat jartzen da, eta haren barruan motor txiki bat” (42.orrialdean)

**ZEREZKOA:** Gauza bat zein materialekin aginda dagoen adierazten du.

Adibidez:

Burdinazko kutxa: burdinaz eginda dagoen kutxa

Bete itzazu ondorengo hutsuneak:

1. Nire jertsea (artilea) \_\_\_\_\_ da
2. Sukaldeko mahaia (egurra) \_\_\_\_\_ da
3. (Kotoia) \_\_\_\_\_ elastikoa jantzi zuen
4. (Larrua) \_\_\_\_\_ zapata horiek oso garestiak dira
5. Norentzat dira (kristala) \_\_\_\_\_ edalontzi hauek?
6. Norenak dira (tergala) \_\_\_\_\_ praka horiek?
7. Lepoko hau (urrea) \_\_\_\_\_ da
8. Zaborra (plastikoa) \_\_\_\_\_ poltsetan atera behar da



2. “...baina lurtarrak ziztu bizian ibiltzen direnez, urtero milaka lagun hiltzen dira auto istripuetan” (43.orrialdean)  
“ Baina ez da egia: hainbeste automobil dagoenez, preso egoten dira denak kaleetako eta autobideetako ilara luzeetan” (43.orrialdean)

**-NEZ (GERO):** kausazkoa

Aditz laguntzaile edo trinkoari -NEZ (GERO) lotuz sortzen da.

Adibidez,

Autobusa galdu duenez (gero), berandu heldu da  
Ikasi ez duenez (gero), ez du gaindituko

Lot itzazu esaldien hasierak bukaerekin:

1. Asko jaten duzunez (gero),
2. Buruko mina dudanez (gero),
3. Aspaldi ikusi ez dudanez (gero),
4. Arrazoia zenuenez (gero),
5. Galderaren bat egin duenez (gero),
6. Maite zaitudanez (gero),
7. Gaur ikusi ez zaitudanez (gero),
8. Oso argia denez (gero),

1. deitu egingo diot
2. ez dizut minik egingo
3. loditu egingo zara
4. aspirina bat hartuko dut
5. gustura erantzungo diegu
6. ez genuen zurekin eztabaidatu
7. ariketak berehala ulertzen ditu
8. gaixorik zeundela pentsatu dut



## 7. ATALA



### ULERMENA

Esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Lurtarrek erabiltzen dituzten paper guztiak dirua dira  
 EGIA     GEZURRA
2. Balio handiko gauzak erabiltzen dituzte trukea egiteko  
 EGIA     GEZURRA
3. Agintariek inoiz ez zituzten lurtarrak engainatu eta urrea banatzen zuten  
 EGIA     GEZURRA
4. Gaur egun gomazko dirua asmatu dute erosketak egiteko  
 EGIA     GEZURRA
5. Bankuak diruaren tenpluak dira  
 EGIA     GEZURRA
6. Negozio guztietan Bankua galtzaile ateratzen da beti  
 EGIA     GEZURRA
7. Saltzaileek urtaro batean saldu ez dituzten gaiak saltzea lortzen dute, merkeago jartzen baitiuzte  
 EGIA     GEZURRA
8. Saltoki gunek handiak herrietan jarri dituzte arratsaldea pasatu, jan, edan eta batez ere erosteko  
 EGIA     GEZURRA





## GRAMATIKA

- I. “Egia esan , lurtarrek erosten dituzten gauzek ez daukate batere baliorik, eta trukerako metalek eta paperek ere ez, baina haiek ederki...” (49.orrialdean)  
“Maileguak ere negozio aparta dira bankuentzat.” (53.orrialdean))

### **ERE**

Ere markatu nahi dugun hitzaren atzean jartzen da.

Adibidez:

Mikelek gaur etxean gosaldu du. Anek ere gaur etxean gosaldu du / Anek ere bai.

Mikelek gaur etxean gosaldu du. Bihar ere gosalduko du. / Bihar ere bai.

Mikelek gaur etxean gosaldu du. Tabernan ere gosalduko du / Tabernan ere bai.

\* Aditza markatu nahi denean.

Atzo guk haiekin gosaldu ere gosaldu genuen.

Atzo guk haiekin gosaldu ere egin gosaldu genuen.

\*Aditza trinkoa bada, aditz horrek ba aurrizkia hartuko du.

Mikel ere BAdator.

Nik ere BAdaukat.

Zuzendu akatsak baldin badaude:

- Nire lagunek eman zuten ere Parisen bost egun.
- Gurasoek ere bai afaldu zuten tabernan.
- Gazteok ere dakigu hori.
- Ere bera jaikiko da laster.
- Zuek ere bai ausartu ahal zarete.
- Zeuek ere badaukazue liburu hori.
- Zure lagunak ibili ziren ere leku horretan.
- Nebak ere bai daki zuk beste gai horri buruz.



2. “Diru apur bat lortu bezain laster, hau eta bestea...” (54.orrialdean)  
“Albotik igarotzean, lurtarrek salgaiak dendetako erakusleihoetan ikusten dituzte...”  
(54.orrialdean)  
“Eta dirua agortzen zaienean, bankuan mailegua eskatzen dute.” (55)

### **DENBORAZKOAK**

Askok dira denborazko perpausak osatzeko erabiltzen diren egiturak. Guk errezenak ikusiko ditugu:

1. Aurrekotasuna  
Dendan gona bat erosi baino lehen, prezioa begiratzen dut.  
Bazkaltzen hasi baino lehen, eskuak garbitzen ditut.
2. Ondorengotasuna  
Bazkaldu eta gero hortzak garbitzen ditut.  
Esnatu bezain laster, komunera joaten naiz.
3. Aldiberekotasuna  
Bazkaldu bitartean, telebista ikusten dut.  
Bazkaltzen dudaNEAN, telebistaren aurrean esertzen naiz.

Bete itzazu hutsuneak denborazko formak erabiliz:

1. Bazkaldu \_\_\_\_\_ eskuak garbitzen ditut.
2. Bazkaldu \_\_\_\_\_ gurutzegramak egiten dituzu.
3. Kafea hartu \_\_\_\_\_ zigarroa erretzen dut.
4. Etxean sartu \_\_\_\_\_ zapatak kentzen ditu.
5. Ohetik altxatu \_\_\_\_\_ duxatu naiz.
6. Erosi \_\_\_\_\_ probatzen duzue.
7. Lana bukatu \_\_\_\_\_ pote bat hartuko dugu.
8. Zu ikusi \_\_\_\_\_ gorritu egiten da.



## 8. ATALA



### ULERMENA

Aukera ezazu erantzun zuzena:

1. Zer da lana?
  - a. Egunero egin behar duten erosketa da.
  - b. Egunero egin behar duten zeregina da.
  - c. Egunero egin behar duten trukea da.
2. Zenbat ordu geratzen zaizkie beren gogozko gauzak egiteko?
  - a. 5
  - b. 6
  - c. 8
3. Denek jasotzen dute soldata berdina?
  - a. Bai
  - b. Ez
4. Zertarako jotzen dute langileek grebara?
  - a. Diru gutxi irabazten dutelako.
  - b. Greba egitean egun librea lortzen dutelako.
  - c. Opor egun gehiago nahi dituztelako.
5. Zenbat lanbide bereizi ahal dira Lurran?
  - a. Oinak erabiliz egiten direnak eta burua erabili gabe egiten direnak.
  - b. Besoak erabiliz egiten direnak eta oinak erabili gabe egiten direnak
  - c. Eskuak erabiliz egiten direnak eta eskuak erabili gabe egiten direnak.
6. Oporretan joateko non begiratzen dute Lurtarrek?
  - a. Telebistan.
  - b. Bidai- agentzietan.
  - c. Aldizkarietan.
7. Nolakoak dira Lurtarrek hartzen dituzten oporrak?
  - a. Oso lasaiak, haien gustoko gauzak egiten dituzte.
  - b. Aspergarriak, ez dute ezer egiten.
  - c. Atsedunik gabekoak dira.



## GRAMATIKA

I. “Nekazariak. Lurreko lanbiderik zabalduena eta beharrezkoena. .... Lurreko langilerik txiroenak dira” (60.orrialdean)

### SUPERLATIBOA

- **EN(A)** Gehientasuna adierazteko erabiltzen dugu. Izen-sintagmarekin badoa, izenak -rik partitiboa eraman ahal du.

Adibidez: Munduko mendi(rik) altuENA da

Erantzun itzazu hurrengo esaldiak:

- Zein da Euskal Herriko hiririk politena? \_\_\_\_\_
- Eta munduko mendirik altuena? \_\_\_\_\_
- Zein da animaliarik handiena? \_\_\_\_\_
- Zein da Euskal Herriko herririk luzeena? \_\_\_\_\_
- Zein da edaririk toxikoena? \_\_\_\_\_
- Zein da munduko ibairik luzeena? \_\_\_\_\_
- Zein da janaririk goxoena, zure ustez? \_\_\_\_\_
- Zein da Euskal Herriko mendirik altuena? \_\_\_\_\_
- Zein da elektrotresnarik garrantzitsuena, zure ustez? \_\_\_\_\_
- Eta munduko animaliarik politena? \_\_\_\_\_
- Eta munduko animaliarik lotiena? \_\_\_\_\_
- Zein da Bizkaiako zubirik famatuena? \_\_\_\_\_
- Eta Nafarroako jairik ezagunenak? \_\_\_\_\_
- Zein da munduko hizkuntzarik zaharrena? \_\_\_\_\_



2. “Poliziak. Gezurra badirudi ere, langile hauek indarra...” (60.orrialdean)  
“Beren bezeroa erruduna dela jakin arren, abokatuek trikimailu pilo...”  
(61.orrialdean)

### KONTSESIBAK

Eguraldi txarra egiten du; hala ere, kalera joango naiz.

\*nahiz eta...+ partizipioa edo aditz jokatua +-en

Nahiz eta eguraldi txarra egin (ez)/ egiten (ez) duEN, kalera joango naiz.

\* partizipioa edo aditz jokatua+ -en arren

Eguraldi txarra egin (ez) /egiten (ez) duEN arren, kalera joango naiz.

\*Adizki jokatuekin bakarrik erabiltzen da.

Eguraldi txarra egiten (ez) badu ere, kalera joango naiz.

### Amaitu esaldiak

- Oso nekatuta nagoen arren , \_\_\_\_\_ .
- Nahiz eta dirua izan , \_\_\_\_\_ .
- Oporretan joateko aukera badut ere, \_\_\_\_\_ .
- Nahiz eta soineko polit bat daukadan, \_\_\_\_\_ .
- Zurekin egoteko gogoia badut ere, \_\_\_\_\_ .
- Kontzerturako sarrerak merkeak izan arren, \_\_\_\_\_ .



## 9. ATALA



### ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Zeri begira egoten dira lurtarrak idolo erlijioso bati bezala?

---

2. Kultura zabaldu beharrean, zer zabaltzen du telebistak?

---

3. Nola egoten dira etxeoak telebistaren aurrean?

---

4. Zer gertatzen zaie umeei ordu asko ematen badute telebistaren aurrean?

---

5. Zer hartzen dute lurtarrek beren eguneroko bizimodu aspergarria ahazteko?

---

6. Zenbat urterekin lortu ahal dute alkohola?

---

7. Non debekatu zuten alkohola saltzea?

---

8. Edan eta gero zer egiten dute lurtarrek? Nola jartzen dira?

---

9. Lurtarren artean edateko zenbait ohitura daude, zeintzuk dira?

---

10. Zein da lurtarren artean arrakasta handia daukan kirola?

---



## GRAMATIKA

1. “...beste mozkorti batzuk dantzan eta kantuan ibiltzen dira eta zuk haiekin dantzan eta kantuan egitea nahi dute.” (69.orrialdean)  
“Eta oso urduri daude denak, beren taldeak irabaztea nahi dutelako.” (70.orrialdean)

### **NOMINALIZAZIOA -TZEA**

Subjektua berbera denean, aditz partizipioa erabiltzen da.

Nik EGIN nahi dut,

Aditzen subjektuak desberdinak direnean, ordea -t(z)ea erabiltzen da.

Nik Zuk EGITEA nahi dut. Nik ez dut egingo, zuk baizik.

Jarri hutsuneetan dagokion nominalizazioa:

1. Nik datorren astean (kantatu) \_\_\_\_\_ nahiko dut.
  2. Nik datorren astean zuek (kantatu) \_\_\_\_\_ nahiko dut.
  3. Haiek guk (hitz egin) \_\_\_\_\_ nahi dute.
  4. Amak zurekin ni (joan) \_\_\_\_\_ nahi du.
  5. Mikelek ez du liburua (irakurri) \_\_\_\_\_ nahi.
2. “ Eta galtzen dutenean, errua ez da inoiz beraiena, epailearena baizik” (70.orrialdean)

**BAIZIK:** Aurkaritza mota honek, lehenengo juntagaian ezeztatzen den galdegaia bigarrenetan baieztatzen du.

Lehen juntagaia ezezkoan doa beti.

Ez du BERAK egin, NIK baizik.

Ez naiz DONOSTIAKOA, BILBOKOA baizik.

Ez da ANARENTZAT, MIKELENTZAT baizik.



### Lotu esaldiak

- |                                 |                    |
|---------------------------------|--------------------|
| 1.- Ez naiz bihar joango,       | marroia baizik.    |
| 2.- Ez dut txokolatea jan nahi, | kotxea baizik.     |
| 3.- Nire ilea ez da beltza,     | antzerkera baizik. |
| 4.- Ez dizut zuri emango,       | sagarra baizik.    |
| 5.- Ez gara zinemara joango,    | berari baizik.     |
| 6.- Ez digu etxea erosi,        | gaur baizik.       |

## 10. ATALA



### ULERMENA

Esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1. Lurtarrek uste dute Lurrean dagoen guztia haiena dela.  
 EGIA    GEZURRA
2. Mugek jendea elkartzen dute  
 EGIA    GEZURRA
3. Lurtarrek pasaporte izeneko agiria behar dute, herrialdez herrialde ibiltzeko  
 EGIA    GEZURRA
4. Erregeak egun osoa ematen du lanean eta herritarrak bere lepotik bizi dira  
 EGIA    GEZURRA
5. Tiranoak agintea hitz eginez eskuratzen du  
 EGIA    GEZURRA
6. Lurtarrek asmatu duten sistematik onena demokrazia da  
 EGIA    GEZURRA
7. Espetxeak toki zoragarriak dira  
 EGIA    GEZURRA
8. Espetxean dagoena diruduna bada, kasu batzuetan kalera irten daiteke, dirua ordainduta  
 EGIA    GEZURRA





## GRAMATIKA

1. "Hemen hasten dira, baina, arazoak, lurtarrak oso txarrak baitira gauzak antolatzen."  
(73.orrialdean)

### **BAIT partikula**

Aurrezki honek -lako baino kausaltasun ahulagoa adierazten du. Bere parekoa izan ahal da Eta forma.

Hona hemen eskema bat:

aditza + Bait- + laguntzailea

aditza + Ez Bait- + laguntzailea.

Bait- aditz laguntzaile edo trinkoari lotuta izaten da. Honek zenbait aldaketa fonetiko sortzen du.

- T + D \_\_\_ T : BAITa, BAITago.
- T + G \_\_\_ K : BAIKara, BAIKenuen
- T + Z \_\_\_ TZ : BAITZara, BAITZen.
- T + N \_\_\_ N : BAInaiz, BAInoa

- 1.- Ezin du kotxea erosi, ez BAITauka dirurik. Ezin du kotxea erosi, ez dauka dirurik ETA.
- 2.- Ez nabil oso ondo, gaisorik BAInago. Ez nabil oso ondo, gaisorik nago ETA.
- 3.- Kontuz lorontzi horrekin, oso hauskorra BAITa. Kontuz lorontzi horrekin, oso hauskorra da ETA.

### Berridatzi ondorengo esaldiak:

1. Datorren astean karibera joango naiz, oporrak izango ditut eta.

---

2. Gaur ez gara hondartzara joango, eguraldi txarra egiten du eta.

---

3. Azterketa hori gaindituko duzu, asko ikasi duzu eta.

---

4. Ezin diot hitz egiteari utzi, oso pozik nago eta.

---

5. Esan azkar, oso nekatuta gaude eta.

---

6. Denok oso pozik geunden , zu zeunden eta.

---



2. “Esan beharra dago oligarka hauek herritarrak mixeria gorrian uzten dituztela (77.orrialdean)

### KOLOREAK

Gizarte modernoetan, gero eta uniformeagoa da koloreen banaketa kultura desberdinetan. Koloreak, ordea, oso bakanka aurkitzen dira naturan. Naturako koloreek tonalitate nahasiak aurkezten dituzte gehienbat, eta ez dira sekula hain kolore garbi edo uniformeak izaten.

Hona hemen euskal kolore batzuen izenak eta erabilerak:

**Urdin:** Zeruko urdinetik zurixkaraino doan tonalitatea hartzen du. Euskaraz urdin kolorekoak dira: ile urdina, ke urdina, laino urdina, zeru urdina (lainotuta dagoenean).

**Zuria:** Zuria garbitasunaren baliokide da baina faltsukeria ere adieraz dezake zenbait esapidetan. Adibidez; zuritu(azala kendu), gizon zuria (alferra), lan zuria (lan erraza), irri zuria (irri faltsua).

**Gorriak:** Gordintasun-, gogortasun- edota biluztasun- kutsua izaten du maiz: kale gorrian(ez daukazu etxerik eta kalean bizi zara), larru gorritan(biluzik), negu gorria(oso negu gogorra), gorriak ikusi (txarto pasatu)...

Bete itzazu hutsuneak:

1. Ez dauka lanik, kale\_ \_\_\_\_\_ dago.
2. Zahartzen ari zara ile \_\_\_\_\_ daukazu.
3. Ufff arratsaldean euria egingo du zerua \_\_\_\_\_ dago.
4. Neska hori ez zait batere gustatzen oso irri \_\_\_\_\_ dauka.



## 11. ATALA



### ULERMENA

Aukera ezazu erantzun zuzena:

1. Zelan deitzen zaio jendea era masiboan hiltzeari?
  - a. Gerra
  - b. Ospakizuna
  - c. Haserrealdia
2. Edozein aitzakiak balio du gerra egiteko...
  - a. Muga arazoak, erlijioa, santuen eguna.
  - b. Erlijioa, jakiak, santuen egunak
  - c. Erlijioa, inperialismoa, muga arazoak.
3. Armagintza munduko...
  - a. industriarik handiena.
  - b. industriarik zabalena.
  - c. industriarik garrantzitsuena.
4. Lurtarren munduan bi mundu daude:
  - a. Mendebaldea eta hegoaldea.
  - b. Hegoaldea eta ekialdea.
  - c. Iparraldea eta hegoaldea.
5. Iparraldeko herriak protesta egiten saiatzen dira?
  - a. Bai
  - b. Ez
  - c. Batzuetan
6. 1.200 milioi lurtarrek:
  - a. 500 dolar besterik ez dute irabazten eguneko.
  - b. 10 dolar besterik ez dute irabazten eguneko.
  - c. dolar bat besterik ez dute irabazten eguneko.
7. Arazoa erraz-erraz konpon daiteke:
  - a. Pobreak aberatsari daukanaren erdia emanda.
  - b. Aberatsak pobreaki daukanaren zatitxo bat emanda.
  - c. Gauzak astiro astiro konponduko dira.



## GRAMATIKA

I. “...aberatsak pobreaki daukanaren zatitxo bat emanda.” (87.orrialdean)

### ERLATIBO DEKLINATUA

Etxea daukan neskaren ama etorri da.

Etxea daukanaren ama etorri da.

Platanoa jaten duen mutilari txistek oso gustatzen zaizkio.

Platanoa jaten duenari txistek kontatzen zaizkio.

Lotu esaldiak adibidean bezala:

1. Nile lagunek mutil bat ezagutzen dute/ mutil hori datorren astean apaiz joango da.

---

2. Egunero egunkaria irakurtzen dut/ egunkari horrek egia asko esaten ditu.

---

3. Emakumeak kotxe handia dauka/ emakume horri loteria suertatu zaio.

---

4. Gurasoek ume bat aurkitu dute / umearen aita nire laguna da.

---

5. Iaz bizikleta bat erosi zenuen/ bizikleta horrekin Donejakue bidea egin duzu.

---

6. Idazle horrek tabernan telebista ikusten du/ idazleari saria eman diote.

---

7. Mendi horren eskumaldean etxetxo bat dago/ han bizi naiz ni.

---



## 12. ATALA



### ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1. Zertaz ez dira konturatzen gizakiak?

---

2. Lurtarren industriak karbono dioxidoa, metanoa eta beste gas asko isurtzen duenez, zein efektu sortzen da?

---

3. Gizakiaren eraginaren erruz, zer ari da desagertzen?

---

4. Zein da lurtarren benetako urrea?

---

5. Zer ari dira lurtarrak jo eta ke mozten?

---

6. Zer da automobilerik eta industriarik sorten dutena?

---

7. Kontsumitzen dutenarekin zer egiten da?

---

8. Lurtar guztiek ama lurra txarto tratatzen dute?

---

9. Zer esan zion Suwamish herriaren Seattle buruzagiak Amerikako Estatu Batuetako presidenteari?

---

10. Zer agortzen ari da?

---



## GRAMATIKA

### I. "Gure lurak erosi nahi omen ditu." (92.orrialdean)

#### **OMEN**

Beti auxiliarraren aurrean joango da. Informazioa beste nonbaitetik atera dugula adierazten du.

Adibidez,

Maite Imanolekin OMEN dabil: Maite Imanolekin dabilela komentatzen da

Berridatzi ondoko esaldiak Omen erabiliz:

1. Datorren urtean oso eguraldi ona izango dugula esaten da.

---

2. Dirudienez, astlehenean greba orokorra iragarrita dago.

---

3. Bere aita ez dela komentatzen da.

---

4. Badirudi ondoko entpresak porrot egin duela.

---

5. Eguberrietan kontzertuak egongo direla entzun dut.

---



2. “Norberekoikeriaren ordez, altruismoa.” (95.orrialdean)  
Lehiakortasunaren ordez, elkarlana.” (95.orrialdean)

**ORDEZ**

Postposizio hau noren kasuarekin erabiltzen da eta aditz partizipioarekin ere bai.

Bihar nire ordez nire laguna etorriko da.

Bihar ni etorri ordez, nire laguna etorriko da.

Ordenatu esaldiak:

1. Naiz/mendira/ordez/ hondartzara/bihar/ordez/joango.

---

2. Ordez/okela/dute/normalean/barazkien/etxean/jaten/beren

---

3. Gure/kopiatu/ordez/lagunek/dute/ikasi.

---

4. Etorri/neska/ordez/berandu/Amaiaren/den/da/egongo/lanean.

---

5. Autobusa/Bilbon/ordez/Mikelek/du/kotxearen/erabiltzen.

---